

Genero-ikuspegia herritarren tokiko parte-hartzearen diseinuan Bilboko hirian

Ane Larrinaga Renteria eta Mila Amurrio Velez
UPV/EHUren *Parte Hartuz* ikerketa-taldeko kideak. UEUko kideak

Artikulu honetan Bilboko partaidetza-instituzioen diseinuaren azterketa egin da eta udal horretan partaidetzarako dagoen aukera-egituraren osagarri batzuk identifikatu dira. Ikusi da identifikaturiko osagarri horiek indarrean dauden parte-hartzerako moldeak baldintzatzen dituztela genero-ikuspegitik eta, hartara, emakumeen bazterketa bultzatzen dutela herritarren partaidetza-praktiketan. Artikuluan jorratutako azterketaren arreta elkarte oinarritzat hartzen duten partaidetza-instituzioetan jarri da bereziki. Arretagune horrek agerian utzi du, konpromiso zabalak erabilia, tokiko gobernuek genero-ikuspegia integratu beharra dutela ez soilik udaleko partaidetza-instituzioetan, baita *governance* demokratikoan parte hartzen duten praktika eta aktore guztien baitan ere, gizarte zibileko elkarteak eta mugimenduak barne.

GAKO-HITZAK: Genero-ikuspegia · Tokiko parte-hartzea · Herritarren parte-hartzea · Governance demokratikoa · Bilboko hiria

The gender focus in the citizen-participatory design of the municipality of Bilbao

Study of the participatory institutional design of the municipality of Bilbao has made it possible to identify some components of the participatory opportunity structure that condition the forms of participation currently in force, and that lead to certain processes of exclusion in women's access to participatory citizen practices. Attention is focused on the analysis of participatory mechanisms that have an associational basis. This has made it possible to reveal the need for local governments, through broad agreements, to integrate the gender focus in an inter-sectorial way, not only in the participatory municipal institutions themselves, but also in all the practices and actors that, on the administration's invitation, take part in democratic governance, including the actors of civil society that make up the civic infrastructure of the community.

KEY WORDS: Gender focus · Local participation · Citizen participation · Democratic governance · City of Bilbao.

Jasotze-data: 2012-07-16. *Onartze-data:* 2012-10-11.

1. Generoa eta partaidetzarako aukera-egitura udal-munduan. Bilboko hiriaren partaidetza-diseinuaren mugak

Herritarrek auzi publikoetan duten parte-hartzea gaur egungo sistema demokratikoen oinarritzko osagarria da. Politologo ezagun batzuen hitzetan adierazita, herritarren parte-hartzeak demokraziaren bihotza osatzen du (Verba, Schloman, Brady, 1995). Baieztapen hori egokia dugu demokraziaren edozein eskalatan aplikatu ahal izateko, baita tokiko demokraziaren esparruan ere. Izan ere, tokiko gobernuaren esparruak demokrazia biziberritzeko gune ezin hobea eskaini lezake, modu formal batean bederen. Ildo horretatik, «tokikotasun eraberritua»-ren (Clarke, 1993) azken ekarpenek tokiko gobernuaren ikusmolde tradizionaletik gaur egungo *governance* delakora eraman dute gobernu-zeregina, hau da, harremanezko gobernura. Kontzeptu horrek partaidetzarako bestelako agertoki bat egon daitekeela erakutsi digu, azken aldi honetan bai agintariek bai elite politikoei onartzen baitute beren egitekoak askotariko aktoreen arteko interakzioa dakarrela, aktore publikoena nahiz pribatuena, hain zuzen ere. Gaur egun oraindino azaleratzen ari den tokiko *governance* horrek erabakiak hartzeko bestelako eredu bat ezarri du, non agentzia publikoen arteko harremanak ez ezik agentzia publikoen eta herritarren arteko harremanak ere aintzat hartzen diren (Goss, 2001). Eredua, beraz, harremanen oinarrian sostengatu eta legitimatzen da, gizarte zibilaren partaidetza sustatzeko eta bultzatzeko gaitasunean, hitz batean, ordezkariatasunean funtsaturiko gobernu-lidergoari udal-kudeaketa irekiago batez ekiteko ahalmenean.

Egiazki, tokiko administrazioak demokrazia aberasteko estrategiak martxan jartzera beharturik daude, gero eta gehiago. Ohiko instituzio politikoen krisiak, hauteskunde-partaidetzaren jaitzierak eta politikarekiko nahitasunik ezak tokiko demokraziaren krisiaz hitz egitera bultzatu dute hainbat pentsalari. Arazo horiei emandako erantzuna tokiko gobernuaren eta kudeaketaren eraberritzea bultzatzea izan da. Egindako erreformak, alde batetik, ordezkari-ta-instituzioak suspertzera bideratu dira eta, beste aldetik, kudeaketa publikoan herritarrak integratuz legitimitate demokratikoa indartzera. Horrela, demokraziaren gehikuntza, arian-arian, herritarren partaidetza handiagoarekin identifikatu da gaur egungo politikagintzan (Pastor Seller, 2008).

Ildo horretatik, tokiko parte-hartzea suspertzeko saiakera asko jarri dira martxan, eta agertoki berriak sortu dira, bai herritarren boteretzeari (empowerment) bai bestelako gai-agendari ateak zabaldu dizkietenak. Halaz ere, aldaketa hori egiaztatu ondoren, honako galdera hau sortzen zaigu: erabat inklusiboak al dira partaidetzarako agertoki horiek gizon nahiz emakumeentzat? Herritarren partaidetza-prozesuen arretazko berrikusketa batek erakusten digu indarrean jarri diren ereduak uzkur agertu direla emakumeen partaidetzari dagokionez. Areago, irazgaitz izan direla genero-ikuspegiaren aplikazioaz den bezainbatean. Massolo-k gogorarazten digun bezala, genero-politikek sortzen dituzte erresistentziarik handienak udal-kudeaketaren eraberritzearen barruan. Izan ere, aldaketa horiek gai irristakorra dira berritze demokratikoan, harremanezko aldaketak ez ezik aldaketa kultural eta jokabidezkoak ere eskatzen dituztelako —hau da, jarrera, balio eta jokamoldeetan, eta ez soilik tokiko gobernuaren eta gizarte zibilaren arteko elkarrizketan— (Massolo, 2003).

Herritar guztien parte-hartzea bilatzeaz gain, genero-ikuspegitik ere inklusiboa izan nahi duen tokiko demokrazia ezin da mugatu parte-hartzerako mekanismo irekiak diseinatu eta instituzionalizatzen. Aitzitik, urrats batzuk haratago, demokrazia horrek ezinbestean aurreikusi behar ditu genero-zuzentasunerako politika aktiboak. Horren haritik, abiapuntuko gure hipotesia da politika publiko jakin batzuen gauzatze ala ez egite gisa ulertu daitekeen genero-politikak tokiko partaidetzarako aukera-egitura taxutzen laguntzen duela eta, ondorioz, bazterketa gertatzen dela emakumeen partaidetzarako sarbidean nahiz partaidetza-praktiketan, baldin eta generoaren faktorea aintzat hartzen ez duten parte-hartzerako mekanismoak martxan jartzen badira. Halaber, uste dugu agertoki instituzional jakin batzuen diseinuak genero-ikuspegitik inklusiboak diren parte-hartzerako aukerak murrizten dituela. Hala, ohiko elkarte oinarritzat duen partaidetza, hau da, genero-ikuspegia barneratu ez duten eta balio postmaterialisten eroale ez diren elkarte mistoen bidezko partaidetza, baldintzapen horren adibide litzateke. Horiek horrela, zer neurritan dauka generoa tokiko boterearen instituzioek egiten duten parte-hartzerako eskaintzak? Zer alderditan nabaritzen dira genero-politiken aplikazioaren (edo aplikazio ezaren) ondorioak emakumeen partaidetza-praktiketan? Bilboko hiriaren partaidetza-esparruaren azterketak, ohiko elkartean oinarrituriko ereduak, alegia, galdera horiei erantzuteko bidea emango digu.

Tarrow eta beste autore zenbaitek «aukera politikorako egitura» kontzeptua (*political opportunity structure*) sortu zuten aspaldi, inguru politikoaren barruan jendearen partaidetza kolektiborako pizgarriak eskaintzen dituzten osagarri formal nahiz ez formalen multzoa izendatzeko (Tarrow, 1994; 1996). Aukera politikorako egituraren zati osatzaile batzuk sistema politikoaren irekiera-mailarekin loturik daude —maila horrek arautzen baitu parte-hartzerako sarbidea—, baita gobernu eta oposizioaren arteko harreman aldakorrek definitzen dituzten lerrokatze politikoekin, balizko aliatuen presentziarekin eta elite politikoen barnean sortzen diren gatazkekin ere (Tarrow, 1994; McAdam, 1996).

Kontzeptua tokiko partaidetza-esparrura ekarrita, aipatutako aukera politikorako egituraren lehen faktorea parte-hartzerako erakundearen diseinu instituzionalari eta haien funtzionamendu-arauei dagokie. Alde horretatik, Bilboko hirian parte-hartzerako eskaintzak elkarrekin oinarritutako Barrutiko Kontseiluak izan ditu ardatz luzaroan, eta diseinu horrek ez du ia-ia aintzat hartu genero-ikuspegiaren aplikazioa. Halaz ere, azken urteotan aurrera egin da genero-politikei atea zabaltzeko beste faktore batzuei dagokienez. Horixe gertatu Tarrow-en ustez aukera politikorako egitura osatzen duen bigarren faktorearekin: bi agintalditan (2003/2007an eta 2007/2011n) bilbotar udala gobernatu duten gobernu-koalizioek bidea eman diete genero-politikei, nahiz eta politika horiek mugatuak izan diren. Aztertutako lehen agintaldian alderdi nazionalista kristau-demokrata nagusi batek (EAJ-PNV), ezkerreko alderdi sozialdemokrata minoritario batek (EA) eta ezkerreko alderdi minoritario batek (EB-IU) osatutako koalizioa atzematen dugu, eta bigarren agintaldian EAJ-PNVk eta EB-IUk osatutakoa. Azken indar hori ideario feministatik hurbil dauden programa eta proposamen postmaterialisten eroale gisa agertu izan da koalizioaren barruan. Hari horretatik, aipatu indar politikoen arteko itunak genero-politiken bultzatzaile izan diren erakunde formalak insti-

tuzionalizatzea ahalbidetu du udal-administrazioaren barruan. Azkenik, Tarrow-ek aipaturiko hirugarren faktoreari dagokionez, esan daiteke gero eta emakume gehiago iritsi dela Bilboko Udaleko botere politikora eta, ondorioz, genero-gaiek gero eta presentzia handiagoa izan dutela tokiko agendan.

Halaz ere, artikulua honetan hauxe nabarmendu nahi dugu: aipaturiko faktoreek ez dute berez agortzen elkartearen parte-hartzean oinarritutako eskaintzaren aukera-egitura. Izan ere, uste dugu elkarte-ehunaren funtzionamendua bera ere aukera politikorako egituraren osagarri dela. Ildo horretatik, gogoan izan behar dugu aukera-egiturak osagai kultural garrantzitsua izan ohi duela (Gamson eta Meyer, 1996) eta bai partaidetza-instituzioen eguneroko funtzionamenduak bai instituzio horietan elkarretaratzten diren elkartearen eraketa-kulturak baldintzatu egiten dituztela herritarren partaidetzarako tokiko instituzioetan gara daitezkeen partaidetza-ereduak.

Bilboko hiriko partaidetza-instituzioen diseinua bat dator Espainiako hainbat udalerritan garaturiko udal-ereduarekin. Herritarren parte-hartzerako tokiko mekanismoak nahiko berandu formalizatu izan dira Espainiako estatuan, frankismoaren garaia ostean udalek ongizate-zerbitzuen eskaintza eraikitzen jardun baitzuten lehentasunez. Hala, hasierako erronka horri aurre egin ostean baino ez ziren arduratu herritarren partaidetzaz, 80ko hamarkadako azken urteetan (Brugué, Font, Gomá, 2007). Madril,artzelona, Zaragoza eta antzeko beste hiri handi batzuen tankeran, Bilbok ere lurralde deszentralizazioan oinarritutako ereduari eman zion bidea eta, horrela, 50.000 biztanle inguruko zortzi barrutitan zatitu zen hiria administratiboki 1989. urtean onartu zen Barrutien Antolaketaren Araute-gian. Azken horren arabera eraturik geratu ziren herritarren partaidetzarako bideak barrutietan. Barruti bakoitza Barrutiko Kontseilu batez eta sektoreka bereizitako bi Batzordeez hornitu zen: hirigintzaz eta lan eta zerbitzuez arduratutako batzorde teknikoa, batetik, eta bestelako gaiez arduratutako batzorde soziokulturala, bestetik (Barrutien Antolaketa eta Hiritarren Partaidetzarako Arautegia, 1989). Ia bi hamarkada geroago, partaidetza-eskaintza handitu egin zen bigarren fase batean, eta herritarren parte-hartzerako diseinu instituzionalak Kontseilu sektorialak ere hartu zituen barnean, besteak beste gure lanerako nabarmendu nahi dugun Berdintasunerako Kontseilua.

Barrutiko Kontseiluaren Osoko Bilkura herritarren kontsultarako gunetzat hartu zen diseinuan. Hala, Kontseiluko kide gehienak tokiko boterean ordezkapena duten alderdi politikoetako kideak dira. Horiek hitza eta botoa dute. Gero, herritarren elkarteetako ordezkarien gutxiengoa dago; azken horiek hitz egiteko eskubidea dute baina ez bozkatzekoa. Lehendakari eta lehendakariordeaz gain, hamahiru kontseilari dira alderdi politikoaren izenean dihardutenak, eta lau kide elkartearen izenean aritzen direnak. Diseinu horren arabera, gehiegizko esku-hartze instituzionala nagusi izan da erabaki-hartze deszentralizatuan, bai presentziari lotutako alderdi kuantitatiboetan bai gai-agendari lotutako alderdi kualitatiboetan. Horrenbestez, aldeztetik definituriko politiken informaziorako eta legitimaziorako gunetzat hartu dituzte lurralde-organismoak agintari politikoek eta ez dute parte-hartzerako bokazioa lotu, ez erabaki-hartze prozesuen hobekuntzarekin ezta giza

kapitalaren sorrerarekin ere. Hartara, jarrera horrek frustrazioa eta txeragabetasuna sortu ditu elkarteetan barnean¹.

Bestalde, barrutietan ordezkatuta dagoen elkarte-ehuna herritarren zenbait erakunde eta sentsibilitatetara mugatuta dago. Ildo horretatik, Bilbon udal-botereak diseinaturiko desentralizazio- eta partaidetza-eredua «pluraltasun mugatuak» ezaugarritzen du (Rodríguez Herrero, 2010), udal-lurraldean egon litezkeen diskurtso- eta pertzepzio-aniztasuna egoki jasotzeko gaitasunik eza erakutsi baitu. Beste hitz batzuetan adierazita, udal-gobernuak modu jakin batean banatu ditu parte-hartzeko aukerak tokiko elkarte-ehunaren barruan. Alde horretatik, funtzio-namendu-arautegiak ezartzen du lehen iragazkia, denboran zehar eguneratu ez den elkarte- eta talde-tipologia jakin bat jasotzen duelako, eta ondorioz, garai postfrankistako lehen mobilizazio-zikloan sustraiak dituen ohiko elkarte-eredua hartzen duelako tokiko boterearen hizketakide legitimitzat: auzo-elkarteak, kirol- eta kultura-elkarteak, laguntzarako elkarteak, AMPAK (Gurasoen elkarteak) eta merkataritzakoak, bereziki (Barrutien Antolaketa eta Hiritarren Partaidetzarako Arautegia, 1989: 6)). Ohiko elkarte mota horien gabeziak nabarmenak dira. Besteak beste, belaunaldien arteko txandaketa ezak harremanen esklerotizazioa sortu du elkarteetan barnean nahiz herritarrekiko harremanetan, baita herritarrekin komunikatzeko baliabideen falta eta elkarteetan beraien jardunaren gardentasun urria ere (Rodríguez Herrero, 2010). Partaidetza-pluraltasunaren defizit horrek 80ko eta 90eko hamarkadetan sortutako bestelako gizarte-kolektiboen ahanztura ere ekarri du, gazte-, antimilitarista-, ekologista- eta feminista-edukiak dituztenak, eta balio postmaterialista eta abangoardisten eroale direnak.

Barrutietan dauden emakumeen kopuruak zehaztean, beste ikerketa batzuetan ikusitako joerak agertu dira gure azterketan ere: emakumeen partaidetza barrutietako Kontseilueta minoritarioa da oraindik ikertutako agintaldietan, doi-doi ukitzen du % 30a. Parte hartzen duen unibertsoaren egitura soziodemografikoa aztertzean, honako ezaugarri hauek atzeman dira: talde heldua osatzen dute parte hartzen duten emakumeek (batez besteko adina 50 urtekoa da). Emakume ezkon-gabe, alargun eta banatutako gehiago dago egoera berean dauden gizonezkoak baino, nahiz eta gehienak ezkondata edo bikotekidearekin bizi diren. Parte hartzen duten emakumeetatik % 14ak besterik ez ditu hamabi urte baino gutxiagoko seme-alabak; gizonezkoen artean, berriz, % 22ra iristen dira adin horretako haurren aita direnak. Gizonezko batek ere ez du aitortzen etxeko lanak egiten dituenik; emakumezkoen artean, berriz kopuru esanguratsuagoak adierazten du egiten dituela (% 17,3). Prestakuntzari dagokionez, gizonek baino emakume gehiagok dauzkate unibertsitate-ikasketak (Amurrio, Larrinaga, Mateos, 2007a). Datu horiek guztiek argi erakusten dute parte-hartzeak kostu bereizgarriak dituela emakumeentzat eta azkenean partaidetza-praktiken protagonista izatea lortzen dutenek baliabide

1. Frustrazio hori behin eta berriro azaltzen da egindako eztabaida-taldeen adierazpenetan:

Ados gaude klase politikoak partaidetza nola ulertzen duen: partaidetza euren diskurtsoa berresten duena da (Eztabaida-taldea 3, M-3).

Dagoen arazoa da ea mundu guztiak modu berean definitzen duen partaidetza (...) Nire ustez hori ez da parte hartzea, kontsultatzea da (Eztabaida-taldea 2, M-3).

Politikariek (...) eurek ematen dute botoa azken batean. Ikusten dut alderdiek eta politikariek hori egin dutela (...) herritarrek indargabetu (...) herritarren mugimendua indargabetu (Eztabaida-taldea 1, M-3).

erantsiak eduki behar izaten dituztela, parte hartzen duten elkarteen barnean nahiz elkarte horien bitartez atzemandako tokiko instituzio parte-hartzaileen barnean.

Barrutietako organoetan parte hartzen duten pertsonak herritar-elkarteen kide izan ohi direnez, elkarrekin gure ikerketaren arretagune izan behar dute, partaidetza-aukeraren egiturari loturik dauden genero-bazterketak hobeto ulertzeko. Izan ere, parte-hartzearen oinarria elkarrekin direnean, generoari lotutako aukera-egiturak bi osagarri dituela uste dugu; batetik, kanpoko osagarri bat atzematen dugu, tokiko partaidetza-mekanismoen diseinu eta funtzionamenduari lotutakoa, eta bestetik barne-osagarri bat, ikusezinagoa, herritarrei partaidetza instituzionala ahalbidetzen dieten elkarteen kultura- eta eraketa-praktikei lotutakoa. Hartara, organo instituzionala egongo diren elkarrekin eraketa-kultura aztertzeak partaidetza zibikoaren bazterketa-mekanismoak ezkutuenak ikusten utziko digu.

2. Deskribapen metodologikoa

Bilboko udalerriri buruzko ikerketaren barruan, herritarren partaidetza gene-roak sortzen dituen desberdintasunen azterketa izan dugu helburu, eta metodologia kuantitatiboaren ikuspegitik nahiz kualitatiboaren ikuspegitik heldu zaio xede horri. Lehendabiziko metodologia tokiko partaidetza-organoei emakumeek duten presentzia neurtzeko erabili izan da, eta emakume horien ezaugarri sozio-demografiko batzuk deskribatzeko. Horretarako, administrazioetik emandako datuak baliatuta, aztertu beharreko unibertsoaren estimazioa egin da, eta ikusi da 317 pertsonak osaturik dagoela. Horiei guztiei galdeketa labur bat egin zaie telefonoz. Pertsona horietatik guztietatik 184k erantzun diote galdeketa. % 95eko konfiantza-mailarekin eta % 5eko errorearekin lan egiteko aukera eman digu lagintamaina horrek. Emaizta tokiko organoetan esku hartzen duten emakume eta gizonen deskribapen soziodemografikoa izan da.

Bestalde, datu kualitatiboaren bilketa-prozesua eztabaida-taldeen teknikaren bitartez egin da lehendabizi. Hiru eztabaida-talde osatu dira horretarako. Lehenengo taldea Bilboko Barrutietako Kontseiluetan eta Kontseilu sektorialetan parte hartzen duten elkarte mistoetako emakume eta gizonen osaturik egon da; bigarren taldean Barrutietako Kontseiluetan eta Kontseilu sektorialetan dauden emakume-elkarte eta talde feministetako emakumeak egon dira, batetik, eta alderdi politikoetako emakume ordezkariak, bestetik; hirugarren taldean, azkenik, Barrutietako Kontseiluetan eta Kontseilu sektorialetan parte hartzen duten herritar-elkarrekin eta emakumeen elkarte eta talde feministetako emakumeak egon dira. Bileretan esku hartu duten parte-hartzaileen hautaketa ez da ausaz egin; taldeen diseinua honako irizpide hauen arabera egin da: sexua, adina, egoera zibila, ikasketak, lanbidea, seme-alabak, zaintza-ardurak, parte hartzen duten organo mota eta ordeztzen duten elkarte edo erakunde mota (Amurrio, Larrinaga, Mateos, 2007b). Bigarrenik, sakoneko elkarrizketak egin zaizkie udalean ordezkariak izan diren alderdi politiko guztietako emakumezko ordezkariak. Artikulu honetan azterketa kualitatiboaren emaitzak hartuko dira aintzat, bereziki; hartara, egiaztapen kuantitatiboetatik harago, esanahi intersubjektiboetan sakondu nahi izan da. Herritarren elkarteetako kideek dauzkaten esanahi horiek sozialki kokatuta daude

eta sozialki eraiki izan dira Bilboko partaidetza-esparruan garatutako partaidetza-praktiketan, elkarteetako kideak tokiko parte-hartzearen protagonista izan diren heinean.

3. Emakumeen partaidetza azpiegitura zibikoan: elkarte-partaidetzaren sustrai pribatua

Elkarteak aukera instituzionalen testuinguruari loturik daude zuzenean; beraz, elkarteetan egoteak herritarren partaidetza-jarduerak laguntzen ditu, zalantzarik gabe. Elkarteek azpiegitura zibikoa osatzen dute (Lowndes, Pratchett eta Stocker, 2006), haien barnean gaitasun eta trebetasun zibikoak garatzen baitira. Horrezaz gain, herritarrak politikoki mobilizatzen dituzten aktore kolektiboak osatzen dituzte elkarteek (Verba, Schlozman eta Brady, 1995). Esku hartzerako hezi eta gaitzen duten guneak izateaz landa, partaidetza bera sustatzen dute (Navarro, Cuesta eta Font, 2009). Putnam-ek dioen bezala, talde barruan aktiboki sortzen den konpromisoak berak eragiten du inplikazio handiagoa elkartetik kanpo ere (Putnam, 2000). Ildo horretatik, pentsalari batzuek herritarren parte-hartzea pizteko elkarteek eragiten duten «dei bikoitza»ren efektua azpimarratu dute (Navarro, Cuesta eta Font, 2009). Izan ere, elkarteek herritarrak trebatu eta inplikatzeko dituzte eta,aldi berean, herritarren eta tokiko botereen arteko hizketakide izatera deitu izaten dira partaidetzarako eskaintza instituzionalaren bidez.

Halaz ere, indarrean dagoen elkarte-ereduan integratzeko emakumeek eragozpen handiagoak dituztela egiaztatzen denez, artikulua honetan izango dugun argudiatze-ildoaren arabera, uste dugu tokiko partaidetza-instituzioetarako giltza diren elkarteak ez direla emakumeei dagokienez herritarren partaidetzarako aukera bikoitz ezpada iragazki bikoitz.

Elkartegintzari buruz Autonomia Erkidegoan egin diren azterketek erakusten digutenez, populazioaren % 30 besterik ez da elkarteren bateko kide edo arduradun (Baxok *et al.*, 2006: 99). Bestalde, Espainiako nahiz Autonomia Erkidegoko testuinguruan egindako ikerketek agerrarazten dute emakumeek gizonek baino neurri txikiagoan parte hartzen dutela, ez soilik ohiko erakunde politikoetan (sindikatu nahiz alderdietan) baita bestelako elkarte zibikoetan ere (Valiente, 2004; Elizondo *et al.*, 2005). Bilboko partaidetza-instituzioetan esku hartzen duten elkarteei dagokienez ere baliagarria da egiaztapen hori. Haatik, datuek aipatu joera erakusten duten arren, fenomeno orokorra den azpiordezkaritza hori elkarte jakin batzuetan gauzaturiko gainordezkaritza sektorialarekin batera agertzen dela ohar gaitzake. Gertakari hori, emakumez osaturiko elkarteetan ez ezik, ongintzako elkarteetan, osasunezko elkarteetan eta zaintzakoetan gertatzen da batik bat (ikasleen gurasoen elkarteetan, drogen aurkako taldeetan, eta abar). Halatan, ikusten dugu egiaztapen kuantitatibo hutsak ezin duela partaidetzaren asimetrien arrazoia azaldu, genero-ikuspegia erabiliz ez bada.

Alde batetik, «zaintzako azpiegitura zibikoan» gertatzen den gainordezkaritzak nabarmentzen du besteen premia eta interesen defentsak akuilatzen duela emakumeen mobilizazioa. Mobilizazio kolektiboaren ohiko azterketek azpimarratu izan dute sari material nahiz sinbolikoen banaketan desabantaila-egoerak nozitzen dituzten talde sozialak izan ohi direla egintzaren subjektuak. Baina, elkarte eta

mugimendu «maternalistek» (Valiente, 2001) eta zaintzakoek bestelakorik erakusten digute, haietan esku hartzen duten emakumeek beste pertsona batzuen beharrianetan jartzen baitute arreta. Emakumeen parte-hartzea nabarmena izan da komunitateen oinarritzko premien inguruan sortutako elkarte eta mobilizazioetan (Rocheleau, Thornas-Slayter, Wangari, 1996; Einwohner, Hollander, Olson, 2000; Beckwith, 2000) eta horrek zalantzan jartzen ditu orain arte literaturan zabalduetako hainbat uste. Lehendabizi, edozein egoeratan emakumeek parte-hartze tasa apalak dituztelako ustea. Jarduera politikoaz nahiz partaidetza zibikoaz eta politikoaz emakumeek daukaten interes eza azpimarratzen duten planteamendu aurrefeministen aurka —zergatik ez zaie interesetzen politika emakumeei? galdetu dute adituek sarritan— gogorarazi behar dugu interes ez hori pertsonen bizibaldintzekin eta genero-harremanekin lotu duela pentsamendu politiko feministak, eta, ondorioz, beste modu batez formulatu duela galdera: politika ez da emakumeen intereseko jarduera, beraz, zer izango ote du politikaren eredu horrek? (Astelarra, 1990; Vianello, Caramazza, 2002). Eta azken galdera hori gure aztergaira ekarrita hauxe esan genezake: zer dauka gaur egungo parte-hartze zibikoaren ereduak, emakumeen partaidetza esparru jakin batzuetan biltzen baitu eta beste esparruetatik baztertu? Zinez, esparru jakin batzuetan gertatzen den emakumeen kontzentrazioak erakusten du generoei sozialki esleituriko jarduera eta rolen arabera espezializaturik daudela partaidetzarako motibazioak eta trebetasunak, eta, beraz, genero-identitateei loturik agertzen direla gaitasun horiek.

Bigarren uste bat ere deuseztatzen du emakumeen kontzentrazio sektorialak, alegia, parte-hartzeak ezinbestean jokabide ikusgarriak dakarrelako ustea ohiko esparru publikoan —instituzio politikoetan, agintaritzarekiko harremanetan, eta abar—. Zaintza-, osasuna- eta besteen beharren asetze-lanei loturik dauden parte-hartze ereduak sarritan partaidetza-esparru ez-formalekin eta, hartara, ikusezinekin uztartuta egon ohi dira. Zientzia Politikoan nagusi izan den paradigma konduktistak erabili dituen partaidetzaren definizioek ez dute beti erraztu partaidetza-esperientzien aniztasuna aintzat hartzea, gehienbat emakumeek gauzatu dituztenak. Are gehiago, ikuspegi horretatik hainbat partaidetza-eredu estalita geratu dira; izan ere, agintari politiko eta sozialen erabakietan zuzenean nahiz zeharka eragiteko asmoz herritarrek gauzatutako egintzat hartu delako partaidetza (Brady, 1999; Font, Montero, Torcal, 2005; Torcal, Montero, Teorell, 2005). Horrenbestez, genero-ikuspegiak emakumeen esperientziatik parte hartzea zer den berriz definitzeko eta kontzeptualizatzeko desafioa dauka gaur egun. Ildo horretatik, feminismo politikoaren ekarpenetako bat emakumeen partaidetzaren adierazpenak eta formak ikusgarri egitea izan da eta, horrekin batera, arlo publiko partaidetza gizonezkoen esperientzien eta arauen arabera definitzen duten paradigma eta kontzeptu androzentrikoak auzitan jartzea. Horretarako, tokiko guneetan emakumeek duten esku-hartzea nabarmentzen dute, askotan ez-formala eta komunitarioa izaten dena, eta eguneroko bizitzako elkartasun-bilbeak eraikitzen laguntzen duena. Tokiko guneetan gertatzen den «partaidetza ikusezin» mota horren kartografia apurka-apurka osatzen ari da azken urteotan (Hernández García, 2009).

Aita eta Amen Elkartearen behin baino gehiagotan AMPA [Asociación de Madres y Padres de Alumnos] deitu beharrean AMA deitzea pentsatu dugu, zeren bederatzi urte daramatzat eta ez dugu gizon bakar bat lortu. Beti izan gara zortzi edo bederatzi

emakumeren taldea eta ez dago horri buelta ematerik (...) Azken batean guk dugu denbora arazo gehien, eta guk hartzen dugu konpromisorik handiena (Eztabaida-taldea 2, M-5).

Ikusi denez, genero-perspektiba aintzat hartzen ez duten ohiko herritar-elkar-teetara zuzendurik dagoen tokiko parte-hartzearen diseinuak rol jakin batzuekin lotutako partaidetza bultzatzen du emakumeei dagokienez, alegia, amaren rolaekin eta beste pertsona batzuen zaintza-lanekin lotutako partaidetza-eredua. Hala, diseinu horrek emakumeei lekua uzten die parte-hartzean, bai, baina gizartean betetzen duten kokapen tradizionala zalantzan jarri gabe. Autore batzuen hitzak erabiliz, «emakumeak parte-hartzean» izeneko estrategia bultzatzen dute, «generoa parte-hartzean» bultzatu ordez (Espiau, Saillard, Ajangiz, 2005).

Nabari denez, elkarte misto tradizionalen berezko antolatze-kultura eragozpena da erabateko genero-demokraziaren lorpen bidean. Baina, kultura hori ez da orain arte aipaturiko lan-sektoreen bereizketan soilik islatzen, agerikoa da denboraren erabileran ere. Bilboko elkarteetan parte hartzen duten emakumeen diskurtsoek erakusten dutenez, izaera mistoko elkarte-esparruan indarrean dagoen denbora-antolatzeari egokitzeko gehiegizko ahalegina egiten dute etengabe parte hartzen duten emakumeek. Elkarte-jarduera kutsatzen duen kultura politikoa sarritan guztiz androzentrikoa da denboraren kudeaketari dagokionez. Elkarriketatu diren emakumezko udal-ordezkarri politikoaren jarduerarekin gertatzen den bezala, elkar-teen jardun zibikoa denbora politiko profesionalaren berezko parametroetan garatzen da. Elkarte-bilbean parte hartzen duten emakumeek gizonezkoen mesedetan sortutako kulturari eta funtzionamendu-arauei egin behar diete aurre. Kultura horren arabera, ia denbora osoko denbora-eskakizunak (jarduera publikoari dedi-katuko denboraren ikusmolde ez-arautuaren isla direnak) ez datoz bat, ez familia-eta etxe-antolakuntzarekin, ezta emakume gehienek ekoizkerarekin ere. Hartara, ezin konta ahalako tentsioak sortzen ditu aipatu kulturak emakumeen bizitzan. Tokiko denboraren politikak garatzeko aldarrikapena, hain zuzen ere, kontraesan horiek gainditzeko saiakerari loturik dago (Balbo, 1987; Gelambí, 2008; Torns, 2008).

Gauzarik nabarmenena lanaren banaketa da. Bileran batean norbaitek hauxe esaten duen egunean «Joan egin behar dut afaria prestatu behar dudalako, umea zaindu behar dudalako, honelako edo halako arrazoiengatik»... Gizonezkoen bileretan hori ez da egundaino gertatu, sekula ere, horregatik ez dira ordutegiak aldatzen. Bilerak ikustea baino ez dago. Zergatik izaten dira bilerak guztiak arratsaldeko 8etan, arratsaldeko 9etan? Gizonek deitzen dituztelako eta ez daukatelako beste zereginik. Zeren 10ak iritsi eta afaria prest dute. Emakume batek ez luke [ordu horretan] deituko, gauza nabaria da (...) Beraz, ez dugu parte hartzen. Hori baino lehenagoko gauzak egin behar ditugulako. Orduan, benetako lan-banaketa dagoen egunean, zortzi gizon eta zortzi emakume joango dira [bileratik], sukaldean aritu behar dutelako, umeak artatu behar dituztelako... (Eztabaida-taldea 2, M-2).

Elkarte-jardueran nagusi diren denbora-antolakuntzaren ereduak izaera patriar-kala izan ohi dute. Halaz ere, garai bateko elkarte-kulturaren osagarriek ezkutatu egiten dute sarri ezaugarri hori. Horrela, erabateko militantziari lotutako partai-detza-eredu jakinak goretzi dira kultura politiko batzuetan: konpromiso militanteari buruzko sineste horiek pertsonen denbora guztia nobere idealari eskaintzea eta

bizitzako beste gune batzuei uko egitea eskatzen dute. Baina, aipatu denbora-ereduak famili-egituren birsortzearekin batera garatzen dira. Emakumeak esparru publikoan sartzen joan dira, bai lanaren arloan eta hezkuntzan, bai politikan eta arlo zibikoan. Haatik, integrazio horrek ez du eragin maila bereko aldaketa estrukturala esparru pribatuan, etxeko lanen ardurek sexuen artean banaketa zuzenagoa izan dezaten. Aitzitik, gizarte-egitura patriarkalaren sustraiak, hau da, esparru publikoaren eta etxeko esparru pribatuaren arteko ohiko bereizketak, bere horretan dirau, eta banaketa horrek emakumezkoen «ardura bikoitza»ren egoera kontraesankorra sortu du, elkarteen esparruko emakumeen partaidetza hainbeste baldintzatzen duena. Hala, nabarmen gelditzen da, beste behin ere, berdintasun formala lortu den arren, berdintasun sozialak aurretik bide luzea ibiltzeko duela oraindino (Postigo Asenjo, 2007; Sánchez Muñoz, 2004).

Pentsamendu politiko feministan agerian utzi den bezala, genero-bazterketaren sustraiak bizirik dirau elkarteen munduan, publiko/pribatu bereizketaren bitartez. Bereizketa horren arabera, familiaren esparru pribatuari, zaintze-lanari eta umeen hazierari loturik mantentzen dira emakumezkoen genero-funtzioak eta erantzukizunak. Aldiz, gizonezkoen rola erabaki-hartzearekin, politika formalarekin, ekonomiarekin eta soldatapeko lanarekin uztartuta agertzen dira. Pateman-ek gogoratzen duenez, gaur egun oraindik indarrean dagoen rol- eta lan-banaketa horrek Modernitatearekin batera ezarri zen «sexu-kontratuan» ditu bere erroak: kontratu hori gizarte zibil modernoari hasiera eman zion gizarte-hitzarmenarekin bat eginez sortu zen, eta sexuei esleitutako ezaugarri jakin batzuen arabera finkatu zituen sexuen betebeharrak eta, hartara, herritartasun-eredua bera ere (Pateman, 1988; 1989).

Sexuen arteko banaketa garrantzitsua da partaidetza zibikoa eta, oro har, herritartasunaren esparru publikoa zelan antolatu den ulertzeko. Herritarren eskubideek eta betebeharrak gizonezko herritarraren ezaugarriak adierazi dituzte histori-koki; hura subjektu autonomo eta abstraktutzat hartu da, harremanezko, txerazko eta gorputzezko loturetatik libre dena eta herritartasunaren eredu unibertsala ordezkatzeko duena. Premiak, txerak, zaintze-ardurak eta harremanak esparru eta denbora publikotik at geratu dira eta, horrenbestez, politikatik ere at. Herritartasun-eskubideek esparru pribatuan eraiki dute beren muga, eta horrek ondorio latzak izan ditu emakumeen bizitzan. Gaur egungo gizarteetako agertoki politikoan herritartasun-eredu baztertzaila horrek ataka ezagunean jarri ditu emakumeak; Pateman-ek «Wollstonescraften dilema» deitu du. Izan ere, emakumeek aukeratu egin behar dute herritartasunaren kontzeptu patriarkalean integratu eta, horrekin batera, praktikan existitzen ez den emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna aldarrikatu, ala emakumeen gaitasun eta esperientzia bereizgarrietan sakondu bai herritartasuna eratzeko bai politika eratzeko, herritartasun liberalak aintzat hartu ez dituen alderdietatik abiatuta (Pateman, 1988).

4. Lanaren sexu-banaketaren birsortzea elkar-te-munduan

Horiek horrela, elkarteen esparruan eraiki diren partaidetza-ereduek, batetik, interes pribatu/etxetierra duten gaiak eta lan-esparruak (hezkuntza, zaintzea, osasuna, eta abar) eta etxetiarrak ez diren interes publikoko gaiak bereizi eta

hierarkizatu dituzte eta, bestetik, partaidetza-jardueraren denborak bereizi dituzte. Modu horretan, birsortu egin dituzte parte-hartzearen esparru publikoan ere gizartean indarrean dauden emakumeen eta gizonen arteko harreman desberdinak. Emakumea elkarte-esparruaren gune jakin batzuetan sartu da, bai, eguneroko gaien berehalakotasunagatik, leku-hurbiltasunagatik eta bere denborak kudeatzeko malgutasunagatik; baina elkarteetan eta tokiko parte-hartzearen munduan sozialki esleituta dituen genero-rolen hedatze naturalizatuaren ondorioz gertatu da sartze hori, halako moldez non, aipaturiko bereizketak emakumea etxearekin lotuta mantentzen duen sinbolikoki. Tokiko esparru publikoan esku hartzea lortu duen arren, igarokortasunak eta egonkortasunik ezak ezaugarritutako egoeran dago parte hartzen duen emakumea. Ikusi dugunez, emakumezkoen parte-hartzea indartu egin da zenbait gotorlekutan —gizonezkoek presentzia urria duten guneetan, hain zuzen—, eta horrekin batera, eguneroko bizitzan gizonezkoekin gutxi partekatzen duten lan-zamarekin bateragarri ez den denbora-kudeaketari egin behar izan diote aurre emakume horiek. Baina, halaz ere, elkarte-esparru gehienetan murrizta da emakumeen parte-hartzea, definizioz gizonezkoen esparrutzat jotzen direlako. Ondorioz, Teresa del Vallek gogorazten duenez, gizonezkoa finkaturik dago esparru publikoan, eta —oraindik ere— bidez dago etxean; aldiz, emakumea etxekoa da eta —gaur egun, oraindik— bidez dago esparru publikoan (del Valle, 1997).

Tokiko elkarte-munduan emakumeak duen parte-hartzearen behin-behineko egoerak, bigarren ezaugarri bat ere badauka, lanaren ohiko genero-bereizketari lotutakoa hori ere. Elkarteetan garatzen diren jarduera desberdinen artean, batzuek erantzukizun- eta lidergo-maila handiagoa eskatzen dute, zalantzarik gabe. Jarduera bereziak direla kontuan hartuz, eztabaidetan erabakiak hartzea, bilerak zuzentzea, diskurtsoak prestatzea edo txostenak egitea, besteak beste, pertsona gutxi batzuen zereginak izan ohi dira (Anduiza, Bonet, Morales, 2005). Hartara, lidergo formal nahiz ez-formalaren funtzioari lotutako protagonismoa gutxi batzuen esku egon ohi da. Baina, deigarria da elkartekideen aniztasuna ustez ordezkatu behar duten elkarte mistoetan ia-ia ez dagoela generoen artean partekaturiko lidergorik erabakiak hartzen diren guneetan eta udal-agintari eta instituzioekin elkarrizketa burutzen den guneetan. Zenbait azterketa enpirikok berretsi dute barne-zereginen bereizketa irizpide hierarkikotik nahiz ikusgarritasunaren irizpide-tik abiatuta gauzatzen dela. Lehenengo irizpidearen arabera, zuzendaritza-beteki-zunak gauzatzera eta erabakien inplementazioa egitera zuzenduta dauden zereginak bereizten dira. Bigarrenaren arabera, foro publikoetan garatuko diren jarduera ikusgarriak eta ikusgarriak ez diren bestelako jarduerak bereizten dira. Azken horiek aitortza sozial gutxi izaten dute erakunde barruan nahiz erakundetik kanpo (Alfama, 2009). Asanblada bitartez diharduten elkarteetan ere, emakumezkoen eta gizonezkoen aipaturiko rol-banaketa etengabe birsortzen da (Segales, 2007).

Lidergoen osaketan islatzen diren elkarteetan barneko genero-hierarkiek lanaren sexu-banaketan daukate azken sustraia. Hierarkia horiek politikagintza profesionalean birsortzen direnen antzekoak dira: esparru horri dagokionez ere, emakumeak gero eta kopuru esanguratsukoan agertzen dira tokiko jarduera politikoa, baina emakume horiek zailtasun handiak daukate gizonezkoek normaltasun osoz eratzen dituzten lidergoak osatzeko (Larrinaga, Amurrio, Mateos, 2009). Oro har,

boteregune eta erabakiguneak betetzen dituztenean, emakumeek erresistentzia handiei egin behar diete aurre; are gehiago, modu ez-formal batez bada ere, eskakizun-maila handiagoa aplikatzen zaie. Aldiz, zuzendaritza- eta lidergo-lanek normaltzat hartzen dira gizonengan, eta begirunez ikusten dira. Zeregin horiek naturalizaturik daude, gizonetzkoek berezko eskubidez okupatu duten esparru politikoaren kulturaren osagarri dira. Izan ere, sozialki baimenduak izan dira gizonak zenbait gaitasun erabiltzeko, eta gaitasun naturalizatu horiek gizarteko esparru guztietara hedatu dira, esparru politikoa barne: nabarmenak dira boterearen kudeaketan, erabakiguneetako parte-hartzean, ordezkariaren erabileran, bozeramale-lanetan, gatazka-kudeaketan, eta abar. Hala, modu paraleloan, elkarte-munduari eta tokiko parte-hartzearen lidergo-jarduerak ere, hau da, zuzendaritza eta ikusgarritasuna dakartzaten jarduerak, ordezkariak, erabakia, negoziazioa eta agintariekin elkarrizketa eskatzen dutenak, horietatik hurbiltzen dira gehien jokamolde maskulinora. Ohiko lanak, eguneroko kudeaketa eta aitortza gutxi gainerako jarduerak ez-formalak, ordea, emakumeen zereginak izaten dira eskuarki.

Esparru politikoan eta zibikoan parte hartzen duen emakumeari, aktibista edo politikari gisa dagozkion lanak garatzeaz gain, sozialki esleitutako genero-rola ere betetzea eskatzen zaio. Ildo horretatik, komenigarria da parte-hartzearen eta protagonismoaren kontzeptuak bereiztea (del Valle, 2001). Eta parte-hartze soila eta parte-hartze eraldatzailea bereiztea. Hain zuzen, lehenago adierazi denez, emakumeen parte-hartze rol tradizionalak betetzeari lotuta egon ohi da behin baino gehiagotan. Egia da tokiko partaidetzak etxeko horietatik harago bitztea esan nahi duela emakume askorentzat, autoestimua eta boteretze-prozesuak eskuratzea ere badakarrela. Baina, parte-hartze ez dago anibalentziatik gorderik. Halatan, parte-hartze aldaketaren sinonimotzat erabili den arren askotan, parte-hartzeak ez dakar berez erabakiguneetan eragina izatea, ezta lidergoa lortzea ere. Are gutxiago esan nahi du lidergo eraldatzaileak sortzen denik. Tokiko elkarteetan eta tokiko partaidetza-instituzioetan dabilzan emakume asko jakitun dira defizit handia dutela eragiteko gaitasunari dagokionez eta aitortza eza nozitzen dutela beren ekarpenei dagokienez. Horrenbestez, parte-hartze, lidergoa eta protagonismoa uztartu egin behar dira, eraldaketa sozialaren parametroetara iritsi ahal izateko.

Gure auzo-elkartean (...) emakumezkoek tiratu dute gurditik (...) Behin baino gehiagotan esan diet: «batzorde bat sortu behar duzue, hitz egitera joan» [barrutiko udal ordezkariarekin hitz egiteaz ari da] (...) Zeren, jakina, «joan zu» esaten dizute. Eta beraiek joan direnean gauzak diren bezala esateko ausardia izan dute. Ez dakit, iruditzen zait badagoela hor traba pertsonal bat, esaten dute «nik ez dut hitz egingo, baina hemen atzean nago, ni atzean nago...» (Eztabaida-taldea 1, H-2).

Postua betetzeko orduan gehien bat gizonak dira, Eta, ez dakit, lan egiteko orduan (...) gu gara batik bat lanean dihardugunak, ez? (Eztabaida-taldea 2, M-1).

Bestalde, gaur egun jarduerak espezializatuak gauzatzeko beharrezkoak diren trebetasun eta ezagutzei loturik dago gero eta gehiago elkarteetan barruan egiten den zereginen banaketa. Zuzendaritza-zereginak eta, oro har, ikusgarritasun handiagoa duten betekizunak eta aitortza kolektibo gehien lortzen dutenak elkarte-esparruan, gaitasun jakin batzuekin harremanetan daude, hala nola erabakiak

hartzearekin, publikoan hitz egitearekin, komunikatuak prestatzearekin, eta udal-agintariekin negoziaketetan edo elkarrizketetan parte hartzearekin. Egia da gaitasun horiek hezkuntza- eta lanbide-mailari lotuta daudela. Baina, horrez gain, genero-identitateak sozializazio-prozesuetan eratu diren moduari ere loturik daude, subjektibotasuna, boterearekiko ahalmenak eta norbere balioari buruzko pertzepzioa prozesu horietan osatzen baitira.

Ildo beretik, kontuan izan behar da botereguneetan egoteak gaitze bat eskatzen duela eta emakume askok uste dute ez daudela gune horietan jarduteko prestatuta (Murillo, 2003). Beste aldetik, gure gizarteetako diskurtso nagusiak parekidetu egin ditu «gaitasuna» eta jakintza formalizatua. Halatan, diskurtso adituak sozialki balioztaturiko jakintza bilakatu dira, eta diskurtso horiek hesi moduan funtzionatzen dute inizatuen taldeko ez direnentzat. Tokiko mundu politikoak eta, ondorioz, elkarte-munduak ere, irudikapen sozial bat eraiki dute non elkarte- eta partaidetza-egintzek gero eta jarduera espezializatuagoak eskatzen dituzten; eta, hain zuzen ere, espezializazioak indartu egin du emakume askoren baitan errotu den gaitasun ezaren eta prestakuntza gabeziaren autopertzepzioa beren interes eta proposamenen defentsari dagokionez.

Ideiak ez dira ezerezetik sortzen. Orduan, irakurri egin behar duzu, kontrastatu, hitz egin behar duzu. Eta, batez ere, irakurri, irakurri eta ikasi egin behar duzu. Jakina, bestela, parte-hartzea aulkia berotzearekin amaitzen da. Eta, egia da, egia da. Zure aurrean jende profesionala egoten da, profesionalki horretan diharduena, zure aurretik doana, biltzarretara, jardunaldietara joaten dena, eta horretarako ordaintzen dutena, informazio asko daukana. Eta, noski, zaila da horrekin lehiatzea (Eztabaida-taldea 3, M-4).

5. Ondorioak

Herritarren parte-hartzearen esparruan emakumeen eta gizonen artean nagusi den desberdintasuna alderdi askotako fenomeno da. Bilboko hirian dauden tokiko parte-hartzerako organoen azterketak partaidetzarako aukera-egituraren zenbait faktore identifikatzen utzi digu; hain zuzen ere, faktore horiek herritarren partaidetza-ereduak taxutzen dituzte eta herritarren parte-hartzea baldintzatzen dute praktikan.

Guk egindako azterketak erakutsi du genero-ikuspegitik parte-hartze eredu inklusiboak bideratuko dituen diseinu instituzionala garrantzizko faktore horietako bat dela. Genero-demokraziara iristeko ezinbestekoa da, besteak beste, parte-hartzearen aipatutako diseinuak genero-zuzentasun politikak instituzionalizatzeko eta aplikatzeko neurriak aurreikus ditzala. Bilboko adibideak ezin hobeki adierazten du demokrazia formalaren mekanismoak ez direla nahiko izaten zuzentasunean oinarritutako herritarren partaidetza bermatzeko. Botere politikoek martxan jarri dituzten elkarten bidezko partaidetza-mekanismoek —ohikoenak, bestalde, tokiko esparruan—, gizarte-pluraltasunari irekita egoteaz gain, komunitatearen azpiegitura zibikoa osatzen duten elkarteetara ere zabaldu behar dute generozuzentasunerako politiken eskaria. Izan ere, genero zuzentasunerako politikak ez dira sortzen modu natural batez. Hori dela-eta, beharrezkoa da tokiko gobernuek genero-ikuspegia integratu dezaten *governance* demokratikoaren aktore eta

praktika guztien baitan, baita azpiegitura zibikoa osatzen duten gizarte zibileko aktoreen baitan ere (mugimenduak, elkarteak...). Bilboko adibideak argitzen duenez, botere politikoak gizarte zibileko aktoreekin dituen harremanetan politika horiek aintzat hartzen ez dituenean, bazterketa-prozesuak gertatzen dira emakumeen partaidetza-praktiketan, aktore horiek udal-instituzioen eta herritarren arteko bitartekari-lana egiten dutelako.

Herritarren parte-hartzearen esparruan genero-demokrazia osoa lortzea baldin bada helburua, marko juridiko-formalari eta diseinu instituzionalari dagokien guztiaz gain, kontuan hartu behar da partaidetza-praktikak kultura politiko jakin batean oinarritzen direla. Aktore politiko eta aktore zibiko guztiek barneraturik daukaten kulturak oharkabean jarduten du gehienetan, eta emakumeen partaidetzaren hazkunde kuantitatiboan gertatutako aurrerabidea geldiarazten du beren inertiarekin. Nagusi den kultura androzentrikoa emakumeen interes eta premiei erantzuten ez dieten botere-ikusmoldeetan oinarritu da. Eta gaur egun herritarren tokiko partaidetzarako diseinatu diren eredu batzuk botere horren erabileraren formak aldatzen ahalegindu dira, baina boterea sostengatzen duten oinarri kulturalak auzitan jarri gabe. Hala, emakumeen presentzia handituz doan arren, herritarren parte-hartzerako instituzioak generikoki osaturiko guneak dira, eta gune horietan sexuen arabera lidergoak eta lan-banaketa moldeak birsortzen dira, generoaren arabera rol tradizionalak esleitzen dira eta ezin iraunezko denbora-patroien arabera jarduten da. Ondorioz, kultura politikoaren aldaketek esparru publikoan nahiz pribatuan diharduten parte-hartzerako instituzioetan eragin behar dute zeharka, eta emakumeek eta gizonek beren bizitzak garatzen dituzteneko esparru bi horiek barneratu behar dira tokiko instituzioek bultzaturiko eztabaida politikoan eta zibikoan —zenbait udalerritan garatutako tokiko denbora-politikak dira horren adibide—.

Emakumezkoen parte-hartzearen bideratzaile izan daitezkeen partaidetza-aukeraren egituraren osagarriek —tokiko elite gero eta feminizatuagoak, tokiko administrazioan instituzionalizaturik dauden genero-egiturak eta horien eragina tokiko emakumeen agendaren sorreran— ezin dute berez demokrazia generikoa bermatu herritarren parte-hartzean, aipaturiko bi faktoreak ez badituzte aintzat hartzen: lehenik, tokiko gobernuak/aktore zibikoak ardatzean genero-politika aktiboak abiaraztea, tokiko *governance* delakoan parte hartzen duten aktoren guztien arteko konpromisoan oinarrituta eta, bigarrenik, esparru publiko/esparru pribatua ardatza tokiko agendan integratzea, partaidetza-praktikak eta parte hartzeko kultura zibikoa aldatzeko aurretiazko urrats gisa.

Bibliografia

- Alfama i Guillén, E. (2009): “Hacia la perspectiva de género en el estudio de los movimientos sociales. La participación de las mujeres en la Plataforma en Defensa de l’Ebre”, *Revista española de investigaciones sociológicas*, **125**, 117-129.
- Amurrio, M.; Larrinaga, A. eta Mateos, T. (2007a): *Participación sociopolítica de las mujeres en los órganos de decisión y consultivos del ámbito institucional municipal de Bilbao. Informe cuantitativo*, Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetza eta Hiritarrak Sailak finantzaturako lanketa (argitaratu gabe).

- _____, _____ eta _____, (2007b): *Participación sociopolítica de las mujeres en el ámbito institucional municipal de Bilbao. Informe cualitativo*, Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarrek Sailak finantzaturako lkerketa (argitaratu gabe).
- Anduiza, E.; Bonet, E. eta Morales, L. (2005): "La participación en las asociaciones: niveles, perfiles y efectos", in José Ramón Montero, Joan Font eta Mariano Torcal (arg.), *Ciudadanos, asociaciones y participación en España*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid, 261-280
- Astelarra, J. (bil.) (1990): *Participación política de las mujeres*, CIS, Madrid.
- Balbo, L. (1987): *Time to care. Politiche del tempo e diritti quotidiani*, Franco Angelli, Milano.
- Baxok, E. et al. (2006) *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Beckwith, K. (2000): "Beyond Compare? Women's Movements in Comparative Perspective", *European journal of political research*, **37** (4), 431-468.
- Bilboko Udala (1989): Barrutien Antolaketa eta Hiritarren Partaidetzarako Arautegia, <http://www.bilbao.net/cs/Satellite?c=BIO_Normativa_FA&cid=3000452962&pageName=Bilbaonet%2FBIO_Normativa_FA%2FBIO_Normativa>.
- Brady, H. E. (1999): "Political Participation", in John R. Robinson, Philip Shaver eta Lawrence S. Wrightsman (arg.), *Measures of Political Attitudes*, Academic Press, San Diego, 735-800.
- Brugué, Q.; Font, J. eta Gomà, R. (2007): "Participación y democracia: Asociaciones y poder local", <www.presupuestosparticipativos.com/files>.
- Clarke, S. E. (1993): "The New Localism. Local Politics in a Global Era", in Edward G. Gotees eta Susan E. Clarke (arg.), *The New Localism. Comparative Urban Politics in a Global Era*, Sage, Londres, 1-21.
- Del Valle, T. (1997): *Andamios para una nueva ciudad: lecturas desde la Antropología*, Cátedra, Madrid.
- _____, (2001): "Asociacionismo y redes de mujeres ¿espacios puente para el cambio?", *Hojas de Warmi*, **12**, 131-151.
- Einwohner, R.; Hollander, J. eta Olson, T. (2000): "Engendering Social Movements. Cultural Images and Movement Dynamics", *Gender and society*, **14**, 5, 679-699.
- Elizondo A. et al. (2005): *Cifras sobre la situación de mujeres y hombres en Euskadi*, Emakunde, Vitoria-Gasteiz.
- Espiau, M.; Saillard, D. eta Ajangiz, R. (2005): "Género en la participación. Un camino por recorrer", *Cuaderno Bakeaz*, **67**.
- Font, J.; Montero, J. R. eta Torcal, M. (2005): "Ciudadanos, asociaciones y activistas", in José Ramón Montero, Joan Font eta Mariano Torcal, *Ciudadanos, asociaciones y participación en España*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid, 25-43
- Gamson, W. A. eta Meyer, D. S. (1996): "Framing political opportunity", in Dough McAdam, John McCarthy eta Mayer Zald (arg.), *Comparative perspectives on Social Movements. Political opportunities, mobilizing structure and cultural framings*, Cambridge University Press, 275-290.
- Gelambí Torrell, M. (2008) "Disseny de les polítiques del temps a les ciutats: processos participatius en l'experiència italiana", in María de la Fuente Vázquez (arg.), *Polítiques locals dels temps. Gènere, ciutat i benestar quotidià*, Institut de Ciències Polítiques i Socials, Universitat Autònoma de Barcelona, Barcelona, 195-226
- Goss, S. (2001): *Making Local Governance Work: networks, relationships and the management of change*, Palgrave, Londres.

- Hernández García, J. M. (2009): *Hacia una cartografía de la participación invisible. Proyectando mapas para la intervención local de las mujeres*, txostena (argitaratu gabe).
- Larrinaga, A.; Amurrio, M. eta Mateos, T. (2012) "Las mujeres en el poder político local: cambios en la agenda política y persistencia de la estructura de relaciones de género", XVII Congreso Internacional de Estudios Vascos, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 119-135.
- Lowndes, V.; Pratchett, L. eta Stoker, G. (2006): "Local Political Participation: the impact of rules-in-use", *Public administration*, Vol 84, 3, 539-562.
- Massolo, A. (2003): "Políticas públicas locales de equidad de género. Una innovación en la gestión municipal, in Dalia Barrera eta Alejandra Massolo (arg.), *El municipio. Un reto para la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres*, GIMTRAP, Instituto Nacional de Mujeres, Mexiko, 11-53.
- McAdam, D. (1996): "Conceptual origins, current problems, future directions", in Dough McAdam, John McCarthy eta Mayer Zald (arg.), *Comparative perspectives on Social Movements. Political opportunities, mobilizing structure and cultural framings*, Cambridge University Press, 23-40.
- Murillo de la Vega, S. (arg.). (2003): *Ciudadanía activa. Asociaciones de mujeres*, Comunidad de Madrid, Madril.
- Navarro, C.; Cuesta, M. eta Font, J. (2009): "¿Municipios participativos? Participación política y ciudadana en ciudades medias españolas", Centro de Investigaciones Sociológicas, Serie Opiniones y Actitudes, 62., Madril.
- Pastor Seller, E. (2008): *La participación ciudadana en los Servicios Sociales Municipales de la Región de Murcia*, Universidad de Murcia, Murcia.
- Pateman, C. (1988) *The sexual contract*, Polity Press, Cambridge.
- , (1989): *The disorder of women. Democracy, feminism and political theory*, Polity Press, Cambridge.
- Postigo Asenjo, M. (2007) *Género y ciudadanía: el discurso feminista en la ciudadanía liberal*, Universidad de Málaga, Malaga.
- Putnam, R. D. (2000): *Bowling Alone: The Collapse and Revival of American Community*, Simon & Schuster, New York.
- Rocheleau, D.; Thornas-Slayter, B. eta Wangari, E. (1996): *Feminist Political Ecology: Global Issues and Local Experiences*, Routledge, Londres.
- Rodríguez Herrero, G. (2010): *Los modelos de descentralización y participación ciudadana en el punto de mira: escenarios plurales y resultados complejos*, Eusko Jaurilaritza-Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- Sánchez Muñoz, C. (2004): "La difícil alianza entre ciudadanía y género", in Pilar Pérez Cantó, *También somos ciudadanas*, Universidad Autónoma de Madrid, Madril, 3-25.
- Segales, M. (2007): "Lugares comunes: ciudad, género y proyectos de resistencia. Paper presented at II Congreso de Economía Feminista", <www.unizar.es/economiafeminista/comunicaciones/area_1_fundamentos_economia.../Marcelo_SEGALES_comunicacion.pdf>.
- Tarrow, S. (1994): *Power in movement. Social Movements, collective action and politics*, Cambridge University Press.
- , (1996) "States and opportunities: The political structuring of social movements", in Dough McAdam, John McCarthy eta Mayer Zald (arg.), *Comparative perspectives on Social Movements. Political opportunities, mobilizing structure, and cultural framings*, Cambridge University Press, 41-62.
- Torcal, M.; Montero, J. R. eta Teorell, J. (2005): "La participación política en España: modos y niveles en perspectiva comparada", in José Ramón Montero, Joan Font

- eta Mariano Torcal (arg.), *Ciudadanos, asociaciones y participación en España*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid, 47-75.
- Torns, T. (2008): "Les politiques de temps des d'une perspective de gènere", in María de la Fuente Vázquez (arg.), *Politiques locals dels temps. Gènere, ciutat i bienestar quotidià*, Institut de Ciències Polítiques i Socials, Universitat Autònoma de Barcelona, Barcelona, 23-46
- Valiente Fernández, C. (2001): "¿Movilizándose por otros?: El caso de las 'Madres contra la droga' en España", *Revista española de investigaciones sociológicas*, **96**, 153-183.
- , (2004): "Las investigaciones sobre las mujeres y la toma de decisiones políticas en España (1975-2000)", in Pilar Pérez Cantó (arg.), *También somos ciudadanas*, Universidad Autónoma de Madrid, Madrid, 217-244.
- Verba, S.; Schlozman, K. L. eta Brady, H. E. (1995): *Voice and Equality. Civic Voluntarism in American Politics*, Harvard University Press, Cambridge.
- Vianello, M. eta Caramazza, E. (2002): *Género, espacio y poder. Para una crítica de las Ciencias Políticas*, Cátedra, Universitat de València. Instituto de la Mujer, Madrid.

